



# **BIZITZA JOKOAN**

**Kriminalizazioa eta Giza Eskubideen Defentsa**  
Criminalización y Defensa de los Derechos Humanos

**Jardunaldien gogoeta eta  
ondorio nagusiak**

**DONOSTIA**

**2017KO MAITZAK 29,30 ETA 31**

Garapenerako Lankidetzak GKE den Mugarik Gabetik (mundu mailako) globalaeta interdependentea den garapenean sinisten dugu. Giza garapen osoa lortu nahian, hau da, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango dena, urko dugun ingurutik garatzen dugu lana, gero gure mugatik zabaltzen dugularik.

### **ARABA**

“Itziar” Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza s/n,  
01003 Vitoria-Gasteiz  
araba@mugarikgabe.org  
Tel.: 945 277 385 / 656708617

### **BIZKAIA**

Vicente Garamendi taldea 5 P.B. 48006 Bilbao  
bilbao@mugarikgabe.org  
Tel.: 94 415 43 07 / 94 415 48 21

### **GIPUZKOA**

Katalina Eleizegi kalea 46, baxua, 3.atea,  
20009 Donostia  
gipuzkoa@mugarikgabe.org  
Tel.: 943 445 977

“Bizitza Jokoa” Jardunaldiak eta argitalpen hau posible egin dituzten pertsona, kolektibo eta erakunde guzti hauei eskerrak eman nahi dizkiegu:

*Martín Mantxo, Josetxo Lukas, Edgar de León, Jesús González, Andrea Bertomeu, Javier Orozco, Patricia Bárcena, Noemí Ostolaza, Ana Gómez, Marta Mato, Maggy Barrere, Irma Lima*

*Koldo Mitxelena Kulturunea, CEAR Euskadi, Ekologistak Martxan, Justizia Sozialaren Aldeko Klinika Juridifkoa (EHU), Ongi Etorri Errefuxiatuak, Donostiako Udala – Garapenerako Lankidetzak Saila, Colectiva Feminista Para el Desarrollo Local, Eusko Jaurlaritza, Programa Asturiano de Derechos Humanos*

## **Babeslea**



## **Argitaratzen du**



# AURKIBIDEA

## Aurkezpena

Bizitza Jokoan BIZITZA babesteagatik \_\_\_\_\_ 4

## Testuinguria, “Bizitza Jokoan” jardunaldien aurkezpen txostenak

Lurra eta Lurralde Eskubidea (Jesus Gonzalez) \_\_\_\_\_ 6

Asilo eta Babes Eskubidea (Andrea Bertomeu) \_\_\_\_\_ 7

Indarkeriarik Gabe Bizitzeko Emakumeen Eskubidea (Ana Gomez) \_\_\_\_\_ 11

## Mahai-inguruetan jorratutakoaren laburpena

Lurra eta lurralde eskubidea eta defendatzen duenaren kriminalizazioa \_\_\_\_\_ 14

Asilo eta babes eskubidearen urraketa \_\_\_\_\_ 18

Indarkeriarik gabe bizitzeko emakumeen eskubidea eta giza eskubideen defendatzaile emakumeen kriminalizazioa \_\_\_\_\_ 22



## Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili. Lizentzia osatua: [https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es\\_ES](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES)

## Aurkezpena

# BIZITA JOKOAN BIZITZA BABESTEAGATIK

Zoritxarrez, maiz, bizitza jokoan egoten da BIZITZA bera defendatzeko orduan... Errefuxiatuen bizitza, emakumeen bizitza, eta Ama Lurraren bizitza.

Finantza sistemaren eta enpresari handien (nagusiki gizonak) boterea handitzen joan ahala, herrien eta pertsonen askatasun eta eskubideak murrizten eta desagertzen dira. Gizon-emakumeak jazartzen eta kriminalizatzen dituzte, hain zuzen ere eskubide horiek defendatzeagatik, eskubide-uraketak salatzeagatik eta botere horiei zein sistema menderatzaileari aurre egiteagatik.

Izan ere, azken urteotan arrazoiz kezkatu gara ikustean giza eskubideen diskurtsoa apaldu egin dela, eta ondorioz, halaxe egin dutela ere eskubideok betetzeko ekintzek.

Esandakoarekin lotuta, uste dugu irizpide ekonomikoak gehiegitan gailentzen direla, irizpide etiko, gizatiar edota politikoen gainera.

Horren ondorio zuzenetako bat da —gaur egun jada ukaezina— mundu osoan herrialde eta pertsonen arteko berdintasun ezaren arrakala handitu izana. Horrekin batera, erantzukizunak alde batera uzten dira biztanleria gehienaren bizi-baldintza duinei dagokienez, baita planetari dagokionez ere. Horrek guztiak eskubide indibidual zein kolektiboak gero eta gehiagotan urratzea dakar; halaber, munduaren beraren eskubideak ere gehitu behar ditugu, gaur egun eskubide-subjektutzat hartzen baita. Bizileku dugun munduaren baldintzak suntsitzen edo errotik aldatzen baditugu, nekez egin ahalko dugu aurrera pertsona guztientzako eskubide guztiak erabiltzeko eta errespetatzeko bidean.

Aurtengo maiatzean eta ekainean Mugarik Gabek “Bizitza Jokoan. Kriminalizazio eta Giza Eskubideen Defentsa” izeneko jardunaldiak antolatu zituen. Bertan, problematika horiei buruz hausnartzeko parada izan genuen, eta bereziki, hain zuzen giza eskubideak defendatzen dituzten horien kriminalizazioari buruz, zeina gaur egun herrialde askotan hedatzen ari den. Zilegitasun osoz, halako egoerak salatzeako eskubidea (eta betebeharra) erabiltzen duten horien aurka.

Horrela, kriminalizazio testuinguru honetan, esparru ezberdinen defentsan ematen den jazarpenaren eta heriotzen berri eman nahi dugu.

Hori da herri indigenen kasua —baita afro herriena eta nekazariena ere—, zeintzuek, oraindik ere, beren jabe diren lur eta lurraldeak defendatzen eta haien aurkako uraketak salatzen jarraitzen duten. Nazioarteko tresnak —azpiegitura handien edo erauzketa-operazioen inguruan herritarrei galdetzea, esaterako— etengabe urratzen dira hainbat herrialdetan (Guatemala, Honduras, Mexiko, Kolonia, Peru...). Ohiko agintariak edo komunitateak izan, eskubide horiek defendatzen dituztenak kriminalizatzen eta jazartzen dituzte, orokorrean enpresa nazional eta transnasionalek hala eskatuta eta dagozkien gobernuen babespean.

Emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea, zoritxarrez, gaur egun etengabe urratzen da munduko herrialde guztietan; batek ere ezin du esan praktika patriarkalez eta indarkeria matxistez libre dela. Bi biak dira sistema honen oinarria, zeinak emakumeen oinarritzko eskubideak erasotzen dituen, eta ezberdintasunak pilatzen. Baina emakumeen eskubideak eraso zuzenen bidez urratzeaz gain, zeharka ere urratzen dira. Esaterako, mugimendu feministak eta emakumeen eskubideen defendatzaileak kriminalizatzen direnean, praktika horiek salatzeagatik.

Testuinguru honetan, hirugarren esparrua asilo- eta babes-eskubideei dagokiena da. Egunez egun, Europak gero eta baldintza okerragoak ditu giza eskubideen sorlekutzat duen diskurtso tradizionala mantentzeko, baldin eta jarraitzen badu harresiak eraikitzen, hesiak altxatzen eta gerretatik ihesi doazen edo bizitza duinago baten bila ari diren pertsonen joan-etorri librea ekiditen.

Erabat kezkatzen gaitu Europan errefuxiatuen krisi deitutakoa hasi eta bi urtera, Mediterraneo itsasoa historiako hobi komunik handiena izateak, edo etengabe akordioak egiteak herrialde

mugakideekin (Turkia, Maroko, Senegal...) Europa zaharraren jendarme bihurtu daitezten, eta horrela ate itxien politikan eragin dezaten. Hori guztia, ezkutatuz Europak daukan eragin maila altua eta erantzukizunak Afrika erabateko txirotasunera amildu duen espolio egoeretan, edo bertako zein Ekialde Hurbileko etengabeko gerra basatietan.

**BIZITZA JOKOAN**  
Kriminalizazioa eta Giza Eskubideen Defentsa  
www.mugarikgabe.org

**MAHAI-INGURUAK**  
Latinoamerikako eta bertako gonbidatuekin  
Koldo Mitxelena Kulturunea - Donostia  
Maiatzak 29, 30 eta 31 - 19:00etan

Hemen labur-labur azaldutako hiru esparru horiei dagokienez, munduko hainbat herrialdetako urraketak egiaztatzen ditugu, baina aipamen berezia egin nahi dugu Guatemalako, El Salvadorreko eta Kolonbiako errealitate horien inguruan. Hausnartu eta ezagutu ahal izan genuen, eta horregatik, Guatemalako oligarkia nazionalaren eta enpresa transnazionalen aldetik ematen diren eskubide urraketan salaketekin bat egiten dugu, hain zuzen lurra eta lurraldea izateko eskubide-urraketak eta galdeketa-eskubidea ez errespetatzeagatik. El Salvadorren emakumeen eskubideen defendatzaile diren emakumeak jazarri eta espetxeratu egiten dituzte oraindik ere. Eta Kolonbian, bake akordioa —babesten duguna— sinatu arren, oraindik ere asko falta da jazartzen eta hiltzen dituzten defendatzaile sozialak eta herritarrak babesteko bidean aurrera egiteko.

Hortaz, argitalpen txiki honen bidez, gure asmoa da aipatutako jardunaldietako hitzaldi, eztabaida eta hausnarketak jasotzea, eta ekarpena egitea salaketaren bidez eta kontzientzia kritikoa sortzearen bidez, giza eskubideen urraketari eta haien defendatzaileen kriminalizazioari dagokienez.

## LURRA ETA LURRALDE ESKUBIDEA

Kaletik galdetuko bagenu eskubide honen inguruan —lur eta lurralde eskubidearen inguruan, alegia—, galderak berehala eramango gintuzke kontinente urrunetara. Guztiok entzun ditugu albisteak, ikusi dugu telebistan edo irakurri dugu zer edo zer, oraindik ere herri askok, nekazari komunitateek edota indigenek jasaten duten errealitate gordinaz, oraindik ere beren lurraldearen aldeko borrokan baitaude gaur egun.

Zenbait elementu garrantzitsu nabarmenduko ditugu hasieratik. Lurraldea ez da lurra; aitzitik, lurra lurraldearen parte da. Adibidez, eta erraz ikusarazteko, herri indigenentzat lurralde bat bizileku izateak egiten ditu herri, espazioa delako nortasuna ematen eta garatzen duena. Baina lurraldea ez da soilik lurraldearen gainazala (nekazal ikuspegi zorrotzena da hori); horrez gain ura, basoak, airea, lurpea eta laborantza-eta ehiza-espazioak ere badira lurraldea, baita eremu sakratuak ere, sinismen-sisteman esanahi sakona dutenak.

***“Latinoamerikan lurra eta lurraldearen defendatzaileak kriminalizatzea eguneroko kontua da, eta egunez egun eragiten ditu heriotzak”***

Labur esanda, mundua, geure burua eta beste gizataldeak ulertzen laguntzen digun espazio zabala da lurraldea. Bertan eraikitzen dugu gure kultura, zentzurik zabalenean.

Latinoamerikan (baita Afrikan, Asian...) lurra eta lurraldearen aldeko borroka ezinbestekoa da gaur egun. Bizi garen mundu neoliberal honetan enpresa transnazionalak eta oligarkiak sartzea azken eraso da (batzuen ustez, behinbetikoa) kolonizazio eta kapitalismo prozesuei eutsi dieten milioika pertsonen aurkakoa.

Sistemak ez du bioaniztasunaren aberastasuna gizatasunaren ondaretzat hartzen; aitzitik,

emaitza kontuetan irabazi sinple eta soiltzat hartzen du. Horrek talka egiten du aurrez aurre gaur egun bizitza eta lurraldea defendatzen duten herriekin, eta ondorioz erasotu, kriminalizatu eta jazarri egiten dituzte.

Baina arazo hau planteatu behar da hango (bestearen tokia) eta hemengo testuinguruaz harago. Izan ere, hemen —Euskal Herriaz ari gara, eta hedaturaz mendebaldeko munduaz— guztiok lurraz eta lurraldeaz gozatzeko eskubidearen alde borrokatzen da ere. Eta hemen ere ematen dira kriminalizazio prozesuak eskubide hori defendatzen dutenen aurka.

Adibide asko ditugu, landa-guneak, ura eta basoak suntsitzean eta pribatizatzean pentsatzen badugu, baina bereziki hemen eta orain eraikitzen ari diren azpiegitura handiez ari bagara: AHTa, presak handitzea eta eraikitzea, bide-azpiegitura berriak...

Latinoamerikan lurra eta lurraldearen defendatzaileak kriminalizatzea eguneroko kontua da, eta egunez egun eragiten ditu heriotzak. Ingurumena defendatzeagatik Hondurasen, Mexikon edo Kolonbian egondako hildakoak estatistiketan islatzen direnean ekologistak direla uste dugu, baina hori ez da guztiz zuzena.

Adibidez, ezkututzen da jokoan dagoena ez dela ingurumenaren defentsa, ulertuta museoak balira bezala kontserbatu beharreko espazioak. Aitzitik, hainbat herri eta komunitateren bizitza espazioen defentsa da jokoan dagoena. Ezkutatu egiten da hildako gehienak indigenak direla. Ezkutatu egiten da, heriotzez gain, gaur egun kriminalizazio prozesuak beste hainbat erasoren bidez egiten direla: mehatxuak, desplazamenduak, eroskeria... Eta emakumeen kasuan, modu latzagoan, sexu-erasoak. Latinoamerikan emakumeek —bereziki indigenek— esaten dute lurraldearen defentsa norberaren gorputza defendatzen hasten dela.

*Jesús Gonzalez Pazos*



## ASILO ETA BABES ESKUBIDEA

Gizateriaren historian beti egon dira muga nazionalen barruan eta haietan zehar mugitzen diren pertsonak, bizirik irauteko edo bizi-baldintza hobeen bila, bakea eta segurtasuna eskainiko dieten lurraldeetan. Azken urteotan, hala ere, desplazamendu behartuen kopuruak gora egin du esponentzialki mundu osoan, jazarpena, gatazkak, indarkeria orokorra edo giza eskubideen urraketak direla eta. Berriki, UNHCRrek 2014 eta 2016 artean 60 milioi pertsona baino gehiago egoera horretan zeudela adierazi du; 2013an 51,2 milioi zenbatu ziren; eta 2006 eta 2012 artean 45 milioi.

Erakunde horrek 2015ean JOERA GLOBALen inguruan egindako azken txostenaren arabera, behartuta desplazatuak 65 milioi pertsona zirela adierazi zuen; haietatik 21 milioi errefuxiatuak ziren, 41 milioi barne-desplazatuak, eta 3,2 milioi asilo-eskatzailak.

Zifra horiek aztertuta, gaur egun munduko biztanleen %1 hartu daiteke barne-desplazatuak, errefuxiatuak edo asilo-eskatzaitzat. Bestela esanda, minutuero 24 pertsona behartuta daude beren etxeetatik ihes egitera babes bila, egunero 34.000 pertsona, alegia.

Desplazatu horien jatorriari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu errefuxiatuak eskualde jakinetatik datozela bereziki. Gaur egun, ia 12 milioi siriar desplazatuta daude Sirian bertan edo herrialde mugakideetan, batez ere Turkian, Libanon edo Jordanian.

Hala ere, albistegietan tarte askorik eskaini ez arren, oraindik ere herrialde askotan sortzen dira desplazamendu behartuak, besteak beste, Ekialde Hurbilean (Afganistan, Irak edo Yemen), Afrikan (Kongo, Nigeria, Eritrea, Somalia edo Sudan) edo, urrunago joan beharrik gabe, Latinoamerikan, Kolonbian.

Edonola ere, nahiz eta azken urteotan mundu osoan gatazkak eta jazarpena areagotu diren, oraindik ere Ekialde Hurbila eta Afrika iparraldea dira ezegonkortasun handieneko eskualdeak eta desplazamendu behartu gehien dituztenak. UNHCRren datuen arabera, munduko errefuxiatuen erdia baino gehiago,

%53 hain zuzen, hiru herrialdetik dator: Siria, Afganistan eta Somalia.

Desplazamendu horien erantzuleei dagokienez, esan beharra dago oraindik ere erantzule nagusiak direla, zalantzarik gabe, errefuxiatuen jatorrizko estatuak eta hango herritar zibilen artean izua hedatzen duten talde armatuak. Dena den, bestelako erantzuleengan — zuzenak zein zeharkakoak— arreta jarri behar da ere, estatu eta enpresengan alegia. Izan ere, haiek sustatzen dituzte 'gerra politikak' eta arma trafikoa, edo garapen-bidean dauden herrialdeetako edo bertako komunitateetako ekonomien espoliazioa.

**“ Munduan minutuero 24 pertsona behartuta daude beren etxeetatik ihes egitera babes bila, egunero 34.000 pertsona, alegia. ”**

Harrera-herrialdeei dagokienez, eskualde txiroetuek edo garapen-bidean daudenek jasotzen dituzte errefuxiatu eta desplazatu gehienak, modu neurrigabearen. Gaur egun, munduko errefuxiatuen %86 herrialde txiroenek jasotzen dituzte. 2015. urtearen amaieran, 10 harrera-herrialde nagusietatik 5 Saharaz hegoaldeko Afrikakoak ziren, eta beste 5 Ekialdekoak; ez zegoen mendebaldeko estaturik haien artean: Turkia (2.541.352) Pakistan (1.561.162), Libano (1.070.854), Iran (979.937), Etiopia (736.086); Jordania (664.118); Kenya (553.912); Uganda (477.187); Kongoko Errepublika Demokratikoa (383.095) eta Txad (369.540).

Siriako gatazkako zifretan sakonduta, 4 milioi errefuxiatu siriarretik 2 milioi Turkian daude, milioi bat baino zertxobait gehiago Libanon, 630.000 Jordanian, 250.000 Iraken eta 150.000 Egipton. Datu horiek aztertuta, ikusiko dugu herrialde guzti horien BPGa Espainiarena baino 30 aldiz txikiagoa dela.

Datu horien aurrean, badirudi nazioarteko komunitaterentzat beste migrazio-fenomeno bat besterik ez dela, eta jende-fluxua geldiarazteko

neurri hertsagarriak hartzen ditu, alde batera utzita kezka gizatiarra. Hori horrela izanik, errefuxiatu eta asilo-eskatzailen gorakadaren aurrean estatuak emandako erantzuna — bereziki estatu garatuena— eskubideak murrizteko dinamikak, sarrera ukatzea edo beharrezko segurtasuna zein tratu gizatiarra ez eskaintzea izan dira.

***“Pertsona bati bere herrialdean bizitzeko eskubide ekonomiko eta sozialak ukatzen dizkiotenean, errefuxiatutzat hartu behar dugu?”***

Praxi hori zaugarritasun egoeran dauden pertsonen nazioarteko babesaren aurka doa guztiz; izan ere, babes horren funtsezko premisa da errefuxiatuei oinarrizko eskubide eta askatasun sortarik zabalena bermatzea, benetako integrazio seguru bat egon dadin harrera-herrialdean, beharrezkoa den neurrian. Hala ere, herrialde aberatsenen babes-erregimena errotik aldatu da azken 20 urteotan: lehen, Gerra Hotzetik zetozen Ekialdeko errefuxiatuak hartzeko diseinatuta zegoen, beren bizileku berrietan errefuxiatu iraunkor gisa kokatzeko; orain, aldiz, “sarrera ukatzeko erregimena bihurtu da, hegoaldeko datoen asilo-eskatzailak botatzeko eta kontrolatzeko diseinatua”.

Jarrera horren atzean, batetik, arazo bat hauteman daiteke migrazio-fluxuen atzean dauden egoera jakinak sailkatzeko. Desplazamenduak sailkatzeak kontuan hartuta boluntarioak ala behartuak direla, bi desplazamendu motaren artean bereizteko beharra azaleratzen du: batetik, migratzeko erabakiaren atzean “onura pertsonaleko arazoak” daudenean, alegia, baldintza ekonomikoak, sozialak eta materialak, edo beren etorkizuna zein haien familiena (migratzaile ekonomikoak) hobetzeko arazoak; eta, bestetik, migratzeko erabakiaren atzean elementu mehatxagarriak dituzten kasuak, bizirik irauteko oztupoak barne har ditzaketenak, arrazoi naturalengatik edo gizakiek sortutakoengatik.

Azken sail horretan kokatzen dira errefuxiatuen eta asilo-eskatzailen desplazamenduak. Hala

ere, esan beharra dago migrazio motak bereizten dituen marra gero eta lausoagoa dela, eta hortaz, lausoagoa dela ere borondatez edo bortxaz migratzen duten pertsonen arteko marra. Indarkeria orokortua, giza eskubideen urraketak, pobretzea eta segurtasun falta nahasten direnean, nekezago bihurtzen da arrazoi horien artean bereizketa egitea.

Zentzu horretan, zenbaezinak dira azalera daitezkeen galderak: eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketak zein mailatan eragiten du herritarren desplazamendu behartuan? Pertsona bati bere herrialdean bizitzeko eskubide ekonomiko eta sozialak ukatzen dizkiotenean, errefuxiatutzat hartu behar dugu? Eta eskubideok ukatzen ez badizkiote, eta eskubide horiek kalitate baxuagoan baldin baditu baina gutxieneko estandar egokien barruan, eta emigratzea erabakitzen badu, migratzailea da? Gosete baten ondorioz ihes egitea, migrazio boluntariotzat hartzen da? Nola sailkatu behar dira beren eskubideak urratzen dituen sistema soziokultural edo hierarkia patriarkaletatik ihes egiten duten emakumeak? Ingurumena hondatzearen edo desertizazioaren ondorioz seguru bizitzea edo beharrian oinarrizkoenak eskuratzea ezinezkoa zaielako desplazatzen direnak, migratzaileak ala errefuxiatuak dira?

Galdera guzti horien eta gehiagoren aurrean, zuzenbideak zorrotzegi jokatzen du maiz. Horren ondorioz, 1951ko Genevako Konbentzioak errefuxiatu izaera ematen die soilik “araza, erlijio, edo herritartasun arrazoiengatik, edo gizarte talde jakin baten parte izateagatik zein iritzi politikoengatik jazarria izateko “ongi” arrazoitutako beldurraren ondorioz, bere herrialdekan kanpo dagoen pertsona, bere herrialdean babesa bilatzeko gai ez dena, edo beldur horren ondorioz bertan babesa bilatu nahi ez duena”.

Izaera hori automatikoki esleitzen zaio edonori baldintza horiek betetzen baditu, baina beste estatu baten babesaren zain geratzen da; azken batean, asiloa —edo babes subsidiario zein behin-behinekoa izateko beste edozein neurri— aitortua izateko beharra dakar horrek.

Horrela, nahiz eta pertsona orok duen asiloa eskatzeko eskubidea (Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 14. art.), babes hori ematea estatuaren eskumen burujabea da



oraindik ere. Estatuak arautzen ditu lege nazionalen bidez babes hori emateko baldintzak, hau da, estatuaren erabaki gutxi-asko arbitrarioa da.

Desplazatu gehienek babes juridikoaren alderdi bikoitz hori bizi behar izaten dute; kasu horietan halako ziurgabetasun batean murgiltzen dira, eta nazioarteko printzipio sendoei eustea baino ez zaie gelditzen. Hala ere, zalantzan jartzen da etengabe ez itzulketaren printzipioa, hau da, beren bizi edo osotasuna arriskuan egon daitekeen herrialdera itzuliak izateko debekua.

**“ Azken urteotan ikusi dugu areagotu egin direla EBren kanpoaldeko mugetako hormak eta hesiak, izan Hungarian, Austrian, Bulgarian edo Spainian ”**

Barne-desplazatuak, errefuxiatuak bezala, jazarpenetik ihes egiten dute baina ez dute beren herrialdeko muga zeharkatzen, eta kasu horietan muga faktoreak garrantzi berezia hartzen du, ez baitute lortzen nazioarteko babesa ere eskuratzea. Herrialdeko muga zeharkatzen ez dutenez, ez zaie Genevako Konbentzioa ezarri ere egiten, eta beraz nazioarteko komunitatearen esku-hartzea are murriztuagoa izaten da, estatuen barne arazoetan esku-hartzea debekatzen duen printzipioa dela eta.

Horrek ondorio oso kaltegarriak ekar ditzake, desplazatu behartuen talde handiak estatu bateko lurralde batean arretarik jaso gabe geratzen direlako. Gerta daiteke estatu horrek desplazatuei beharrezko babesa ez eskaintzea, edo, areago, hain zuzen desplazamendu behartuak eragin dituzten agenteen menpe geratzea.

### **HORTAZ, ESAN DAITEKE KRISIAK JO DUELA ASILO-ESKUBIDEA?**

Asiloaren izaera gizatiarra gorabehera, eskubide honek ez du lortu eskumen burujabeen esparruaz harago joatea, eta giza eskubideen esparruan sartzea *asiloa eskuratzeko eskubide* bihurtzeko.

Ez dira garairik onenak asiloarentzat, bereziki estatu boteretsuenei dagokienez; horiek, arrazoi ekonomikoengatik migratze-fluxuak kontrolatzeko obsesioan, asilo-eskubidearen babes helmena murrizten duten barne-praktika eta arauetara jotzen ari dira. Duela 25 urte asilo-eskaeren %80 onartzen zen, eta gaur egun eskaeren %80 ukatzen da. Hori guztia, UNHCRek esan arren duela 25 urteko zifrek gaur egun Europara etorri nahi dutenen errealitatea isaltzen dutela oraindik ere.

Zentzu horretan, nahiz eta inork ez duen zalantzan jartzen estatuak eskubidea dutela beren lurraldera sartu nahi duten atzerritarren sarrera arautzeko, horretarako ezartzen den araudiak errespetatu egin behar ditu estatuak giza eskubideei dagokienez hartzen dituzten konpromisoak. Batetik, segurtasun nazionalaren edo ongizate estatuaren, eta bestetik, elkartasunaren artean dagoen kontraesan faltsua ezin da erabili azken honen kalterako; bereziki printzipio humanitarioak eta eskubiderik oinarritzkoenak urratzea baldin badakar, estatuak horiek babesteko konpromisoa hartu baitute.

Izen okerraz “errefuxiatuen krisia” deitzen duguna geldiarazteko EBk martxan jarri dituen neurriek, hala ere, interes falta islatzen dute indarkeria orokortuta dagoen egoeretatik ihesi doazen pertsonak babesteko. Izan ere, horien helburu bakarra da Europa gotorleku bihurtzea giza eskubideekiko errespetuaren eta asilo-eskubidearen kontura.

Horrela, azken urteotan ikusi dugu areagotu egin direla EBren kanpoaldeko mugetako hormak eta hesiak, izan Hungarian, Austrian, Bulgarian edo Spainian; zalantzazko legezkotasuna duten etorkinak berriz ere onartzeko akordioak; edo are ondasun-konfiskazio politikak, Danimarkan gertatu bezala.

Lotsagabekeria txundigarriaz ematen zaie mugak kudeatzeko eta kontrolatzeko eskumena beste herrialdeei edo “herrialde tapoiei”, zeintzuek zalantzazko zilegitasun demokratikoa duten, eta are zalantzazkoagoa duten giza eskubideekiko errespetua (Maroko, Turkia eta Mazedonia). Trukean, pribilegiadun kide bihurtzen dira eta diru asko jasotzen dute. Eta nola ez, ezin ditugu ahaztu “beroan egindako

itzulketak”, maiz indarkeriaz egiten direnak Bulgarian, Grezian edo Espainian. Azken herrialde honek, Espainiak, atzerritarrei buruzko legea erreformatu berri du “mozal lege” ezagunaren bidez. Horrela, “mugako

bazterketa” izeneko kontzeptua sartu du, Ceuta eta Melillako mugetan “beroan egindako itzulketak” juridikoki bermatzeko etsi-etsian egindako saiakeran.

*Andrea Bertomeu Navarro*

## INDARKERIARIK GABE BIZITZEKO EMAKUMEEN ESKUBIDEA

Kezka handiz ikusten dugu nola areagotu diren indarkeria patriarkalaren adierazpide larrietarikoak gure herrialde batzuetan. Gorakada hori zenbakien bidez adierazten da, eta krimenen ankerkerian islatzen. Hori guztia, batetik, borondaterik agertzen ez duen estatu arduragabe batean gertatzen ari da, zeinak biktimen eta biziraun dutenen haserrea isilarazi nahi duen inpunitatearen mozalaren bidez; eta bestetik, biktimarioak moralki kondenatu ordez, biktimak birbiktimizatzen dituen gizarte batean gertatzen da, eta horrela beren gizatasunaren aurka egindako krimenen erantzule bihurtzen ditu (patriarkatuaren paradoxetako bat, hain zuzen).

Gogorarazi eta ikusarazi egin nahi dugu Emakumeen Giza Eskubideen defendatzaileek egiten duten lana. Hainbat kolektibo sozial eta feministatan dabiltzan emakumeak dira, egunero haientzat zein gizartearentzat justuagoa eta parekideagoa izango den gizarte baten alde borrokatzen direnak. Emakumeok gure eskubideak erabili ahal izateko egunero borrokatzen diren emakumeak dira, inposatu dizkiguten genero aginduak zalantzan jartzen dituztenak, emakumeak gutxiesten dituzten gobernuen jarrerak eta legeak salatzen dituzten kolektiboak. Finean, emakumeen eskubide-urraketak onartzen dituzten eta askotan erantzule diren gobernuen aurrean borrokatzen dira.

Nahiz eta emakumeen giza eskubideak modu ezberdinetan adierazten diren eta magnitude asko dituzten, kausa komunak identifikatu ditugu;

- Ideologia patriarkal eta heteroarautuek zehazten dituzte egitura eta erakunde sozialak, sinismen eta arau kultural eta erlijiosoak, legeak, politika eta diskurtso publikoak; horien emaitza dira bereizkeria eta genero ezberdintasuna.
- Fundamentalismo erlijiosoek eta kontserbadurismo orokorrak beren ideologia eta ordena morala inposatu nahi dute, eta lege murriztaileak sustatzen dituzte eskubide sexualei eta erreproduktiboari dagokienez, edo familia eta emakume eredu jakin bati

dagokienez. Fundamentalismoa herrialde erlijiosoetan emakumeentzako mehatxua izateaz gain, estatu laikoetan ere bada mehatxua, eragile fundamentalistek boterea eta zilegitasuna dutelako.

- Kapitalismo neoliberalak, zeinak pertsonak eta natura merkantilizaten dituen eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen gainetik, eta gero eta gehiago mugatzen dituen eskubide zibil eta politikoak. Makineria honek funtzionatu dezan, emakumeek rol erreproduktiboan eta, jakina, pasiboan iraun dezaten bermatu behar du.
- Sektore pribatuaren irabazi-asmoak are gehiago babesten dituzten krisi demokratikoak eta kontserbadurismo politikoa, eragile ekonomikoek kontuak exijitu ezin dizkieten demokraziak alegia, zeintzuek inpunitatez jarduten duten egiturazko indarkeria eta erakundeena zilegitzat hartuta. Estatuak porrot egiten dute, ez soilik egin ezaz, beren betebeharrak baita giza eskubideen urraketak prebenitzea eta ekiditea; askotan, ez dute legerik ere egiten eskubideak defendatzeko eta urraketan inpunitatea ekiditeko. Egoera horiek larriagotu egiten dira erregimen autoritarioen testuinguruan.
- Militarizazioa eta munduko osoko gatazka egoerak; horrek fundamentalismoak sustatzen ditu, eta, posible bada, ideologia zein praktika patriarkal eta heteroarautuak are gehiago errotzen ditu. Horrek maskulinitate bortitzen adierazpideak eta emakumeen mendekotasuna indartzen ditu, biak elkar elikatzen direlarik, eta askotan sexu-indarkeriaren bidez adierazten dena.
- Ideologia patriarkalak aldatu behar dira, baita heteroarautuak, neoliberalak, inperialistak, fundamentalistak eta militarizatuak ere, egitura sozialetan ez ezik sustraituta baitaude gizartearen

balio eta ikusmoldeetan ere, hau da, herritarrek ikusteko, ulertzeko eta egiteko daukagun moduan. Zapalkuntza maskulino heterosexuala inposatzen duen sistema da, zeinak emakumeoi gure eskubideak aske erabiltzea ukatzen digun.

Testuinguru honetan, mugimendu feminista zutik dago eta borrokan jarraitzen du. Jatorri ezberdineko emakumeek zapalkuntza pairatzen dugu bereizkeria eta berdintasun eza direla eta, nahiz eta modu ezberdinean izan. Elkar entzun eta lagundu behar dugu, indarrak batu gure eskubideak erabiltzeko. Emakumeen giza eskubideen defentsa, oraindik ere beharrezkoa —are ezinbestekoa— den borroka da.

Emakumeen giza eskubideen defendatzaileei sinesgarritasuna kentzen diete, eta mehatxatu, erasotu eta hil egiten dituzte giza eskubideak defendatzeagatik eta emakume izateagatik.

Defendatzaileek aginte sozialak zalantzan jartzen dituzte emakumeok izan behar dugun jarreraren inguruan. Horregatik hain zuzen, defendatzaileen nortasunagatik eta egiten dutenagatik, patriarkatuari eta heteroarauari egin behar diete aurre nagusiki.

Defendatzaileei zuzendutako mehatxuak eremu pribatutik publikora pasatzeko arriskua hartzeagatik ematen dira; aldarrikapen eta borrokarako subjektu aktiboak direlako, eta ez babestu beharreko objektu pasiboak; eta gizon eta emakumeen arteko bestelako harremanen alde borrokatzen direlako.

Emakumeen jarduna etxeko zaintzara —ama eta emazte izatera— mugatzen duen munduan, ekintza politikoan jarduten diren emakumeak (erakunde eta gobernuai aurre eginez) jazarri, estigmatizatu, erasotu eta hil egiten dituzte.

Emakumeen kolektiboak eta kolektibo feministak erreprimitu egiten dituzte agindu sozialak kritikatu eta haien aurka egiteagatik, eta emakumeenganako zapalkuntza sistematikoko eta egiturazko testuinguru horretan ezarritako arauen aurka borrokatzen dute defendatzaileek, emakumeok eskubideen subjektutzat har gaitzaten.

Ezinbestekoa da giza eskubideak ikuspegi feministatik definitzea eta praktikan jartzea,

ezbairik gabe emakumeentzako eskubide ere izan daitezten. Parekidetasunaren alde egingo duen ikuspegia alegia, emakumeen giza eskubideen urraketa sistematikoa suntsituko duena, eta jakina, indarkeria matxistak barne hartuko dituena.

Emakumeek eskubide guztiez gozatu dezaketela bermatzeko, gaur egun ez da nahikoa eskubide berdintasuna eta indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea formalki aitortzea. Aurrerabide juridikoak gorabehera (zenbait tokitan, bederen), arrakala erraldoia dago emakumeen giza eskubideak aitortzearen eta haietaz gozatzeko aukeraren artean.

Urraketa horien aurrean, giza eskubideen markoak neurriak hartzera behartzen ditu estatuak, baina ez du ezertarako balio estatuak nazioarteko hitzarmenak berresteak ez bada legerik betetzen, ez planik egiten ezta horiek garatzeko aurrekonturik gauzatzen ere.

***“ Emakumeen giza eskubideen defendatzaileei sinesgarritasuna kentzen diete, eta mehatxatu, erasotu eta hil egiten dituzte giza eskubideak defendatzeagatik eta emakume izateagatik.”***

Nahiz eta diskurtso politikoetan giza eskubideen defentsaren alde egin, eta askotan baita indarkeria matxita suntsitzearen alde ere —bereziki data jakinetan—, errealitatean, mundu osoan gailentzen dira goi eta erdiko klaseko gizon zuriei nagusitasuna eta pribilegioak ematen dizkieten ideologiak, emakumeak zapaltzen dituztenak.

Giza eskubideen urraketan testuinguruan, indarkeria matxistei esanahia ematea beharrezkoa da indarkeria horiei guztiei aurre egingo dien kontzientzia soziala eratzeko, eta hori emakumeen giza eskubideen inguruko pedagogiarene bidez egin behar da ezinbestean.

Mugarik Gaben 2010n hasitako “Enfrentamos todas las violencias machistas. Patriarkaturik gabe, denok jabe” izeneko kanpainari jarraiki txosten bat argitaratu dugu, Feminizidioa Euskadin eta Nafarroan 2010-2015 izeneko. Feminizidioa etengabeko indarkeria horien

formarik muturrekoena da, eta ziur asko, baita adierazpiderik ikusgarriena ere. Jakin badakigu, zenbaitetan, hedabideek edo erakundeek muturreko indarkeria kasuetan jartzen duten fokua eragiten duela indarkerien inguruko ikuspegi globalagoa eta konplexuagoa galdu dezagun.

Ez guke ikuspegi galera hori sustatu nahi. Hala ere, uste dugu beharrezkoa dela feminizidioen errealitatea aztertzea; hain zuzen ere, ez direlako ekiditeko beharrezko neurriak hartzen ari, muturreko gertaerak diren arren.

Gizonek etengabe erailtzen dituzte emakumeak, eta badirudi gizarteak eta erakundeek onartu egiten dutela, ia ekidinezina den hondamendi natural bat balitz bezala. Feminizidioaren paradigmatik etsipen horretatik atera nahi gaitu, eta mahai gainean jartzen ditu feminizidioa bere alderdi eta konplexutasun guztiekin batera ulertzeko elementu garrantzitsuak. Soilik hori ulertuta izango da posible prebentzio neurri eraginkorrak hartzea eragile instituzional eta sozial guztien aldetik.

Emakumeen nazioarteko mugimendu zabalak, nahiz eta gaur egun giza eskubideak babesteko eta sustatzeko nazioarteko sistema egon, oraindik ere gogorarazi behar du *emakumeen eskubideak giza eskubideak direla*; azken hori berandu onartu zen, 1993an, Vienan egin zen Giza Eskubideen Munduko Konferentzian.

**“ Beharrezkoa da feminizidioen errealitatea aztertzea; hain zuzen ere, ez direlako ekiditeko beharrezko neurriak hartzen ari, muturreko gertaerak diren arren ”**

Gizonaren eta Herritarren Eskubideen Adierazpenetik (1789), Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948) egin zen arte, eskubideen *“unibertsaltasuna”* zalantzan jartzen zen; hain zuzen, beste errealitate batzuen

artean, emakumez ari garenean dagoen defizitaren inguruk. Prozesu motela eta neketsua da emakumeen eskubideak txertatzea Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea osatzen duten itunetan, xedapenetan, adierazpenetan eta bestelakoetan. Nazioarteko Konferentzietan eta Batzarretan lortutako oinarriko emaitzak mugari garrantzitsuak izan dira, eta emakumeek eskubideak bermatuta izan ditzaten, eta erabili eta gozatu ditzaten, arrakalak izendatu eta eten behar direla berresten dute. Hala ondorioztatu da, besteak beste, honako nazioarteko batzarretan: Emakumeen Kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatze Konbentzioa (1979), Vienako Giza Eskubideen Munduko Biltzarra (1993); Emakumeen aurkako indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Desegiteko Amerika arteko Hitzarmena – Belem do Parako Hitzarmena (1994); Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia, (Kairo, 1994); Gizarte Garapenari buruzko Munduko Goi Bilera (Kopenhage, 1995); Emakumeen Munduko IV. Konferentzia (Pekin, 1995); eta Emakumeen Aurkako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren Aurkako Borrokari eta Prebentzioari Buruzko Hitzarmena–Istanbulgo Hitzarmena (2011 eta 2014).

Emakumeen aurkako indarkeria, adierazpide guztietan, giza eskubideen etengabeko egiturazko urraketa da, gizarte guztietan hedatuena eta inpunitate mailarik handiena duena. Emakumeen giza eskubideak masiboki urratzen dira, sistematikoki eta eragile askoren bidez. Hala ere ez du interesik sortzen, eta soilik giza eskubideen urraketa larrien kasuan erantzuten da tinkotasunez nazioartetik. Emakumeen aurkako indarkeriak jatorri kolektibo eta politikoa duela ikusarazi nahi dugu, giza eskubideen markoan kokatuta. Era berean, erantzukizunak seinatu nahi ditugu, eta gaiaren inguruko nazioarteko zuzenbide itunak sinatzean, estatuak hartutako eginbeharrak gogorarazi. Hain zuzen, estatuaren betebeharra da emakumeen eskubideak errespetatzea eta babesteaz gain, eskubide horietaz gozatzeko neurri positiboak ezartzea.

Ana Gómez



## Mahai-ingurua

# LURRA ETA LURRALDE ESKUBIDEA ETA DEFENDATZEN DUENAREN KRIMINALIZAZIOA



**EDGAR DE LEÓN**, abokatua, maia-quiché indigena (Guatemala). Uk' ux B'e Elkarte Maiako kidea.

***Guatemalako egoera bake akordioetatik 20 urtera; akordioak ez betetzea, herri indigenen eskubideen ingurukoak bereziki... Besteak beste, lur eta lurralde eskubidea..***

36 urteko gerraren ondoren, 1996ko Guatemalako bake akordioak giza eskubideekiko errespetu handiagoa aurreikusten zuen. Hori lortu egin da neurri batean, baina ez aktibismo indigenari dagokionez. Aktibista indigenak inoiz baino errepresio handiagoa pairatzen ari dira estatuaren eta enpresa transnazionalen aldetik. Edgarrek maieraz agurtuz hasten du bere hitzartzea, euskaldunek bezala bere nortasunaren parte den hizkuntza propioa baitu. Edgarrek zenbait paralelismo antzematen ditu euskararen eta maieraren artean, aldarrikapenari dagokionez. Maientzat lurraz eta lurraldeaz hitz egitea espiritualtasunaz hitz egitea baino ez da, baina ez ikuspuntu erlijioso batetik. Gaur egun, harriei, zuhaitzei edo ibaiei hitz egiteak friboloa eman dezake, nahiz eta maia kulturen duela gutxi arteko ohitura izan den hori, Edgarrek azaltzen duenez. Maientzako, lurraldea lurra edukitzeko eskubideaz harago doa; haien ustez, lehenengo oinarria Ama Lurraren eskubidea da. Maiek “Qanan Ulew” edo, hegoalderago, “Pachamama” deitzen diote Ama Lurrari. Uste dute maila juridikoan eta konstituzionalean babestu behar dela Ama Lurra, eta azaltzen dute tamalez Guatemalan hori proposatu ere ez dela egin.

Horrela, egungo zuzenbidean nagusi den antropozentrismoak ezin du ulertu lurraldeak pairatzen duen edozein gaitzek, gizakiei eragiteaz ez ezik, naturari ere eragiten diola. Horrela jatorrizko herrien esentziari berari egiten dio eraso. Hori hala izanik, herri horientzat erabat ezinezkoa da *lex mercatoria* eta Ama Lurrar batzea.

Bestalde, Guatemalako estatuaren rola kritikatzeko Edgarrek; herrialdean 25 herri indigena daude baina estatuak ez du utzi horiek nazionalki eraiki daitezken. Edgarrek nazio aniztasuna eskatzen du, baina baita aniztasun juridikoa ere, hau da, lege indigenak errespetatzea. Hori ez da aitortu duela gutxi erreformatu den konstituzioan.



## ***Enpresa transnazionalak maien lurraldean sartzea, baliabideak xahutzea eta protesta soziala kriminalizatzea***

Oraintsu, enpresa handi batek 70 tona urre eraman ditu Guatemalatik, eta bertako herritarrek ez dute espoliazio horretatik onurarik atera. Giza baliabideen espoliazioak ez du etenik. Hala ere, hori Guatemalako eskubide urraketen arteko bat baino ez da: lurraldea militarizatzea, aktibismo indigena kriminalizatzea, haien baliabideak pribatizatzea eta konstituzioaren 70. artikulua ez errespetatzea. Hain zuzen, artikulua horren arabera, estatua behartuta dago giza eskubideei buruzko legeak garatzera, jatorrizko herrien eskubideak barne. 25 urte geroago, artikulua hori ez da gauzatu.

Hori gutxi balitz, Edgarrek azpimarratzen du Guatemalako sistema judizialak, askotan, aholkuak ematen dituela arauak ezarri ordez. Horrek ez dauka lekurik zuzenbide positiboan, haren arabera legeak dioena ebatzi beharko litzateke eta. Horren adibidea da azpiegiturak —urtegiak kasu— eraikitzeari buruz herri indigenak kontsultatzeko betebeharra. Inposatu ordez, praktikan, epaileek galdetzea aholkatzen dute Hartara, indigenen kriminalizazioa alderdi penalean eta militarrean gauzatzen da.

### **MARTÍN MANTXO, Ekologistak Martxan-eko kidea**

#### ***Lur eta lurralde eskubidearen defentsa Euskal Herrian, eta mugimendu ekologistaren proposamenak bizitzarako alternatiba gisa***

Ekologismotik bat datoz Edgarrek esandakoarekin, alegia, lurra eta lurraldea naturaren parte direlako ideiarekin. Horren adibide da “Ama Lurra babestu dezagun” lema zaharra. Hitz horiek sentimental samarrak iruditu ahal zaizkigu, baina lema politikoa da egiatan. Lurralde nozioa desagertu egin da euskal gizartetik. Gehiegizko desarrollismoaz eta behar ez diren azpiegituz libre den lurraldea da. Martinek gogorarazten du AHTaren gisako azpiegitura handiek ere kalte egiten dietela nekazariei. Lagun baten kasua kontatzen du, zeinari AHTaren obren ondorioz sagardi bat eta baso bat suntsitu zizkioten. Errealitate hori Euskal Herriko baserriar askorena da, eta lanpostuei ere eragiten die. Ekologistaren iritziz, Euskal Herrian gailentzen den lurralde nozioak puntako enpresei egiten die mesede, Iberdrola eta BBVAri esaterako. Halako proiektuek, beste modu batean bada ere, munduko beste eskualdeak ere berdin kaltetzen dituzte; besteak beste, Latinoamerika.

#### ***Presioak eta kriminalizazioa Euskal Herriko eta nazioarteko mugimendu ekologistari***

Okultismo handiagoren babespean bada ere, Euskal Herrian ere ematen dira presioak lurraldearen aldeko aktibisten aurka. Euskal Herriko aparteko egoerak salbuespen-zigorak eta lege antiterroristak eratu ditu, eta aktibista ekologistak erreprimitzeko ere erabili dira. Kriminalizazio hutsa da hori; ingurumenaren aldeko borroka bestelako borrokekin lotzea. Adibidez, terroristatzat hartzea errepide mozketak egin dituzten pertsonak, eta ondoriozko espetxe zigorrak. Mozal Legea abiatu denetik, estatuak 131 milioi euro bildu ditu, eta 22.000 pertsona auzipetu ditu; horietako 11.000 soilik Euskal Herrian. Kontuan hartuta mugimendu ezberdinetako pertsonak auzipetu dituztela, aktibismoa kriminalizatu nahi dutela ikus dezakegu argi eta garbi. Horrela gertatzen da mundu osoan; neoliberalismoaren ofentsiba da mugimendu altermundialisten aurka, argi eta garbi.

### **JOSETXO LUKAS, “Lurraren oreana” kolektiboko kidea eta Baserria XXI esperientziaren sustatzailea.**

#### ***Apaizartzako proiektua (Lezo); autogestioa, elikadura burujabetza eta jasangarritasuna, hiri inguruko espazio okupatu batean.***

Gaian sakondu aurretik, Josetxok aipatzen du proiektu honen aurrekaria Jaizkiblego kanpo-portuaren aurkako borroka izan zela, 10 urtekoa. Portuaren proiektuak porrot egin zuen, hein

batean presioaren ondorioz, baina diru publikotik milioiak xahutu ziren. Hala ere, Gaintxurizketa plataforma logistikoaren proiektuak zutik jarraitzen du, eta bertan dago Apaizartza.

Jose txok eta beste kolaboratzaile batzuek urratsa ematea erabaki zuten, eta nekazaritza ekologikoan oinarritutako alternatiba bat sortu zuten, ekonomikoki bideragarria gainera. Halaber, frogatu nahi zuten lurrik gabeko kolektibo batek ere nekazaritza egin dezakeela, eta horregatik okupatu zuten Aldundiaren baserria. Kolektiboak Oarsoaldeko eta Donostialdeko zazpi kontsumo talde hornitzen ditu; astero 100 saski egiten dituzte, hau da, 100 kontsumo-unitate elikatzen dituzte. Horrela frogatzen dute posible dela kalitatezko elikadura, bertakoa eta jasagarria hornitzea. Hektarea bat eta erdik 100 familia elikatu ditzake. Hartara, plataforma logistikora bideratutako 55 hektareak 4000 bizikidetz-unitate elikatu ahalko lituzkete, eta 110 lanpostu sortu. Hori bada egiazko alternatiba.

### ***Erasoak eta mehatxuak: presioak, sabotajeak, AHTa...***

Jose txok gogoan du Itoizko ekintzaileen kasua, espetxean egon baitziren lurraldea defendatzeagatik. Nahiz eta epaiaren arabera proiektua ilegalki prestatu zen. Apaizartzari dagokionez, proiektuan inplikaturako jendea kriminalizatzeaz gain, estigmatizatu ere egiten dute mugimendu okupa izate hutsagatik. Denbora behar izan duten arren, Gaintxurizketako baserritarrek Apaizartzakoen jarduna errespetatzen dute. Besteak beste, tokiko ekonomia sortzen dutelako.

Gaur egun kolektiboak "higiezinen jazarpena" pairatzen du auzoko baten aldetik, zeinak ama eta ahizpa baseritik bota zituen. Mehatxuak, irainak, sabotajeak eta are eraso pertsonalak eguneroko kontua dira Jose txo eta bere lagunentzat. Horregatik adierazten dute kasu profesionala dela, zeinak zerikusia duen higiezinen espekulazioarekin eta, beharbada, plataforma logistikoarekin. Erruaren zati bat aldundiarena da, Gipuzkoako Landa Lur Bankuaren esleipena intermodalaren (AHTa) baldintzapean jarri duelako. Hori are lazgarriagoa da kontuan hartzen badugu Lezoko herritarrek plataforma logistikoaren aurka agertu direla. Proiektu horrek 1200 nekazaritza-hektareari eragingo lioke.

## **HIRU GONBIDATUEN HIZPIDEA**

### ***Lur eta lurralde eskubidearen aldeko protesten kriminalizazioari aurre egiteko estrategia garrantzitsuenak, edo nola indartu eskubide horren defentsa maila lokaletik globalera.***

**EDGAR DE LEON:** Bi helburu ditugu, lehena epe labur-ertainera, eta bigarrena epe luzera. Fontierraren (Fondos de Tierra) esperientziak aurreikusten zuen urteetako borrokaren ostean lurrak indigenen artean banatzea, baina ez zuen funtzionatu; funtsean, estatuak indibidualki entregatu zituelako lurrak, eta ez kolektiboki, nahiz eta herri indigenen artean ohikoa hori izan. Jabe indibidual horiek presio handiak pairatzen dituzte enpresa transnazionalen aldetik, lurrak saldu ditzaten. Horrela hedatzen ari dira olio-palmondoarena bezalako landaketak Guatemalan. Lurrak saldu ezean prozesu judizialak hasi ohi dituzte, eta askotan lur horiek desalojatzeko bukatzen da auzia. Lurraldea defendatzeko modurik onena kolektiboan defendatzea da, baina horrek ahalegina eskatzen du ere. Izan ere, abokatu maiak onartzen du indigenen artean ere badagoela modu indibidualistan pentsatzen duenik. Judizialki defendatzeko modurik onena modu komunalean egitea da.

Edgarren iritziz, epe luzera Guatemalak birsortze politikoa behar du. Alderdi politiko ezkertiar, indigena, ekologista eta abarrak, oraindik ere, estigmatizatu egiten dituzte. Modu honetan, Guatemalak presidente eta presidenteorde ustel batzuk baztertzea lortu du, haien ondoren komiko bat izendatzeko. Penagarri samarra da hori.

**MARTIN MANTXO:** Presioak gorabehera, borroka soziala da bide bakarra. Zaila izan arren, batzuetan aurpegia ematea besterik ez da geratzen. Honelako espazioak erabili behar ditugu, gure ideiak azaldu ditzagun eta entzun gaitzaten. Egia da gure aktibismoak ez diela aurre egin behar Erdialdeko Amerikakoak bezalako egoerei, non Berta Caceres hil zuten. Era berean Mantxok Edgarren ikuspuntua indartu nahi du, zeinaren arabera gerra lurra kentzeko estrategia izan zen ere. Hala gertatu da Guatemalan, Kolonbian eta El Salvadorren, besteak beste. Baina hemen ere egon dira ahaztu ezin ditugun biktimak. Esaterako, Gladis del Estal, 1979an Tuteran nuklearren aurkako protesta batean eraila.

**JOSETXO LUKAS:** Lehiakortasuna nagusi da ere nekazaritza munduan, eta horren alternatiba bat eskaini nahi dugu. Gakoa da lehenbizi nekazariekin harremanak eratzea, eta ondoren herritarrekin. Uste dugu kontsumo taldeak horretarako plataforma egokia direla, sentsibilizaziorako bidea ere eskaintzen dutelako. Bukatzeko, Josetxok gogorarazten du gaur egun Euskal Herriko nekazarien erronkarik handiena, ziur asko, Zubietako erraustegia dela; lehenbizi nekazaritza-lurretan eta gero elikadura-sisteman bukatuko duten dioxinak kanporatzen dituen sistema, alegia.



## Mahai-ingurua

### ASILO- ETA BABES-ESKUBIDEAREN URRAKETA



**PATRICIA BARCENA, CEAR Euskadiko koordinatzailea.**

***Europar Batasunak martxan jarri nahi dituen nazioarteko babeserako estandar berriei buruz<sup>1</sup>: Asilo-politika bidezkoago baterantz doaz? Ala, aitzitik, babeseraren dutenen interesak kontuan hartzen ez dituen eredu konplexu baterantzko atzera buelta da?***

Hasteko, Patricia Barcenak gogorarazten du EBk babestutako asilo-politika berriak — Lampedusako tragedia baten ostean adostutakoa— helburu ekonomikoak dituela batez ere; helburu ekonomikoa izan zuten ere Dublingo eta Schengengo akordioek, alegia, joan-etorri askeko akordioek. Akordio horiek estatuak behartzen zituzten beren asilo-politikak leuntzera, eta teorian 2015erako herrialde guztiek irizpide berdinak izan behar zituzten asiloa emateko orduan. Guztiek izan behar zuten harrera-sistema bera, zeinetan errefuxiatuek berme sozial eta juridiko berdinak izan behar zituzten.

CEAR Euskadiko koordinatzailearen arabera, 2015etik krisia ez da “errefuxiatuena”, baizik eta Europako asilo-eskubidearena; izan ere, nabarmena da herrialde guztiek ez diotela burujabetza horri uko egin nahi. Gogoratu behar dugu asilo-eskubidea ez dela Europako kontua: Genevako Hitzarmenak dio estatu guztiak behartuta daudela beren herrialdeetatik ihesi dauden pertsonen asilo-eskaerak onartzera. Dena den, estatuena da azken erabakia. EBko kide izateak, behartu egiten ditu, baina hala ere, praktikan, hori ez da gertatzen; Alemaniak 700.000 pertsona hartu ditu, eta Espainiak 7.000. Horrela, 2015etik, sistema erreformatu egiten dute eraginkortasunik ez duelako, nahiz eta errealitatean okerrera egin duen.

1 Eskuragarri: [http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-16-1246\\_es.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-16-1246_es.htm)

***Jarraibide berrien balorazioa, errefuxiatuak birkokatzeaz EBko estatu kideei ezarritako ardurei dagokienez... Balizko hobekuntzak eta Espainiako Estatuko autonomia erkidegoen arreta planei nola eragiten dieten.***

Barcenak nabarmentzen du EBko herrialde guztiak errefuxiatuak hartzek prest egon beharko liratekeela beste estatu kide batek hala eskatuz gero, Italia eta Greziarekin gertatu den bezala. Horren orde, badirudi estatuak birkokatze kuotengatik borrokatzen direla. Hala ere, Europako erakundeetan badaude birkokatze-mekanismoak, urtero egin beharko liratekeenak.

Espainiak 1.000 errefuxiatu baino gehiago hartu ditu, egokitzen zaizkionak baino askoz ere gutxiago. Birkokatzea gauzatu ezean, badaude zigor posibleak, baina falazia bat baino ez da politikoki erakargarria ez den une honetan. Hala ere, egia da epeek eta errefuxiatu kopuruak ezinezko egiten dutela ezarritako denboran harrera egitea. Neurri hertsagarriek gutxi laguntzen dute, baina argi dago aldatu behar diren egiturazko arazoak daudela.

**JAVIER OROZCO**, errefuxiatu kolonbiarra, giza eskubideen Asturiasko programaren koordinatzailea

***Desplazamendu behartuak Kolonbian: arrazoiak, eragileak eta gobernuaren eta eragile sozialen arteko elkarrizketen egoera, bakea eta giza eskubideekiko errespetua eraikitzeko.***

Zalantzarik gabe, giza eskubideen urraketaren lehenengo eragilea eredu ekonomiko neoliberal da. Eredu horrek nekazariak, indigenak eta beltzak kanporatzen ditu. Estaturen politika Kolonbian eta beste leku askotan, besterik gabe, ekonomia ereduaren menpekora da, eta beraz kanporatzeak gauzatzen ditu baita ere. Duela 50 urtetik hona, Kolonbiako gobernuak nekazaririk gabeko ekonomia baten alde egiten du; hori egiteko bi modu daude, dela hiriguneak masiboki industrializatuta, dela kanporatzeak gauzatuta. Orozcok dio bere herrialdeko gobernuak bigarren aukera gauzatu duela, argi eta garbi. Masak deslokalizatzeko modu bat gerra da. Izan ere, Kolonbian ez dago desplazaturik gerraren ondorioz; aitzitik, gerra dago desplazatuak egon daitezen, eta horrela lurralde bat berariaz eta bortxaz okupatzeko, bereganatzeko.

Orozcok salatzen du mendebaldeko multinazionalak ere erantzukizun maila bera dutela lurraldeetako kanporatzeetan: meatzaritza, hidrokarburoak, garraioa, etab. Beharbada, larriena da kanporatze gehiago egongo direla, FARCEkin egindako bake akordioa gorabehera. Hala ere, Asturiasko programatik lanean jarraituko dugu. 17 urtetan 100 lagun baino gehiago ekartzea lortu dugu.

***Herrialdeak errefuxiatu eta barne desplazatuekiko dituen erronkak, FARCEkin sinatutako bake akordioaren ostean.***

Juridikoki ez dago ezer apartekorik FARCEkin egindako bake akordioetan, konstituzioan datozen tresnak programa bihurtzen ditu. Gero eta arazo gehiago sortzen ari dira akordioa dela eta, baina Javierrek dio bera egondako kanpaleku batean gerrilla zorrozki betetzen ari dela akordioan adostutakoa. Gobernuak ere ia dena bete du, baina ez da inoiz prest agertu eredu ekonomikoaz eztabaidatzeko, akordiotik kanpo geratu zen gaia hain zuzen.

Orozcoren arabera ereduak aurrera egiten badu, desplazamenduek ere aurrera egingo dute, FARC egon ez arren. Akordioaren azken erreformak ikusita, armak utzi ondoren FARCEn eta beste gerrillen rola gutxienekoa izango da. Guztiaz ere, elkarrizketa politikoa da bide bakarra.

**NOEMI OSTOLAZA**, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua

***Eusko Jaurlaritzaren neurriak eta proposamenak: "Laguntza osagarriko sistema", giza krisiaren aurrean errefuxiatuak hartzeko eta "giza korridorea" sustatzeko.***



Ate irekien politikak euskal erakunde guztien artean adostu ziren, mundu osoko desplazamendu behartuei erantzuteko. Ostolazak azaltzen du agian itxaropen gehiegi jarri zituztela Europako erakundeek egingo zutenaren inguruan. Ezohiko larritasuneko egoera baten aurrean ezohiko neurriak espero zituzten, eta ez zen hala izan.

Beste neurri batzuen artean, euskal erakundeek giza korridoreak proposatu zituzten. Giza korridoreek mehatxupean dauden pertsonak ihes egitea errazten dute, eta ondoren eskualdeetako gobernuei erabakimen gehiago emango dien eskumen-marko bat eratzen da. Sailburuaren arabera, hori guztia estatuaren arabera da, eta antolakunde eta GKEekin elkarlanean aritzeaz gain ezer gutxi egin dezaketela dio. Auzolan izeneko programa sustatu dute: erakundeen eta gizartearen arteko sare bat da, etorri berriak beharrezkoa dutenarekin hornitzeko. Aurretik jakin gabe zenbat, noiz edo nola helduko diren.

### ***Zein jarrera du Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzak planteatutako ekimenekiko? Negoziazioak, arazoak eta oztopo posibleak***

Komunikazioa egon badago Espainiako eta EAeko Gobernuen artean, baina argi dago estatua eroso dagoela oraingo asilo-sistemarekin. Testuinguru horretan, estatuak beti inposatzen dizkie mugak Lakuatik egiten diren proposamenei. Sailburuak uste du estatua prest dagoela autonomia erkidegoen ekarpen gehiago jasotzeko, betiere erabakimena berea baldin bada. Eusko Jaurlaritzak parte hartu duen asilo-politikak monitorizatzea eskatzen du, eta presioa egiten jarraituko du Madrildik inposatzen dituzten marra gorrien barruan. Orain lantzen ari diren neurriak dira asilo-eskatzailleek Helduen Hezkuntza (HHE) eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jaso ahal izatea. Errefuxiatuak masiboki etorri ez diren arren, esperientzia hau proba bat izan daiteke datozen krisiei begira.

## **HIRU GONBIDATUEN HIZPIDEA**

***EBren jarrera bikoitza: batetik, giza eskubideak, eta zehatzago, errefuxiatuenak babesteko nazioarteko eta Europako sistemari edukia eta eraginkortasuna kentzen dizkio; bestetik, erabateko begirunea eta errespetua agertzen du multinazional handien merkataritza eta inbertsio akordioen arauetik.***

**PATRICIA BARCENA:** Funtsean, errefuxiatuei egiten zaien harrera giza eskubideen adierazpenaren urraketa da. Halaber, Europa giza eskubideen gotorlekua delako irudiarekin hautsi da, agerian utzita joan-etorri libreak helburu ekonomikoa duela bereziki. Europa da errefuxiatuen eta migratzaile ekonomikoen arteko dikotomiaren erantzulea, eta azken horien eskubideak mugatzen ditu horrela. Asilo-itunak erreformatu beharko lirakeke, bestelako mehatxu motak pairatzen dituzten pertsonak ere babestu ditzaten. Baina ez dago borondaterik. Badago borondaterik, aldiz, enpresa transnazionalak babesten dituzten itun ekonomikoak sinatzeko.

**JAVIER OROZCO:** Merkataritza Askerako Itunak (MAI) espoliazio komertzialari bidea irekitzen dioten mekanismoak dira, eta herritar zaugarrirei eragiten diete. Amerikako herri tradizionalak lotura estua dute lurraldearekin, beraz, lurraldea galtzen dutenean, galdu egiten dute ere kolektiboki defendatzeko ahalmena. Javier Orozcok ondo ezagutzen du Kolonbia eta EBren arteko MAIa. Itun horren neurrien artean jasotzen da Kolonbiako enpresa publikoak pribatizatzeak aukera. Herriak ez du ezer irabazten horrekin, baina aurrerago enpresa hori berriz ere publiko bihurtzen bada, enpresa europarrak kalte-ordaina jaso beharko du. Horrek agerian uzten du gobernuaren independentzia faltua dela, inongo gobernu autonomok ez liekeelako halako neurriak inposatuko bere herritarrei.

Aukera bakarra borroka bakezalea da, oraindik ere, herri indigena, afro eta bestelakoentzat. Soilik horrela erabili ditzakete beren eskubideak eta defendatu beren lurraldea. Besteak beste ENEL transnazionala sartzeko ekidin dute, nahiz eta hildako askoren kontura izan den beti.



Hala ere, Orozcoren arabera, arrisku erreala da MALak sinatzen dituztenek ez dutela adostutakoa ere errespetatzen. Obamasan itunak (Obama-Santos) klausulak aurreikusten zituen, non gobernuari exijitzen zitzaion nekazarien giza eskubideak errespetatzea, eta zigorgabetasunarekin amaitzea. Hala ere errepresioak jarraitzen du. Enpleguari eta Kolonbiako elikadura-burujabetzari ere eragiten dio, soilik monolaborantza sustatzen duelako eta beharrezkoak ez diren produktuak ekartzen dituelako, bide batez enplegua suntsituz. Beste behin ere, erresistentzia da erantzuna: haiek baldin badute besteen kontura beren merkataritza zabaltzeko askatasuna, guk defendatzeko eskubidea daukagu.

**NOEMI OSTOLAZA:** EBren jarrera bikoitza ikusita, Ostolazak onartzen du beharbada garrantzi handiagoa eman diotela laguntza-neurriei, presioa egin beharrean egiturazko aldaketak egon zitezten. Hala ere, politikak laguntzen ez duen une honetan, hori ez da erraza. Europako erakundeek ez dituzte errefuxiatuak jaso nahi, baina herritarren zati handi batek ezta ere. Areago, herrialde batzuetan erreferendumak egin dituzte desplazatuak jaso nahi dituzten ala ez galdetzeko. EAEn, aldiz, egoera bestelakoa da, herritarrek elkartasun gehiago agertzen dutelako eta giza eskubideekiko kontsekuenteagoak direlako.



## Mahai-ingurua

### INDARKERIARIK GABE BIZITZEKO EMAKUMEEN ESKUBIDEA ETA GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILE EMAKUMEEN KRIMINALIZAZIOA



**IRMA LIMA**, koordinatzailea El Salvadorko Colectiva Feminista para el Desarrollo Local-en

#### *Emakumeen eskubideen urraketak El Salvadorren, legegintza eta defendatzaileen kriminalizazioa*

Hasteko, Irmak gogorarazten du El Salvador eta inguruko eskualdeak gatazka armatuak markatu dituela, baita borroka sozial eta politikoak ere. Badira jada 25 urte El Salvadorko bake hitzarmena sinatu zenetik, zeinetan emakumeak protagonista izan ziren. Gizarte bidezkoago bateranzko bidea izan behar zuenaren egileak izan ziren. 25 urte geroago emakumeen eskubideak, oraindik ere, ikusezinak dira gizartean. Bestelako indarkeria motak gailentzen direla eta, ez da emakumeen kontrako indarkeriaz hitz egiten. Hala ere, feminizidio tasa izugarri altua da. Soilik 2015. eta 2016. urteen artean, 5.000 eta 6.000 emakume artean hil zituzten. Amerika osoko feminizidio-tasarik altuena da hori.

Indarkeriaren bestelako adierazpideak ere ohikoak dira, hala nola sexu-erasoak; horien %50 adingabeen aurka eta familia ingurunean ematen dira. Nerabeen haurdunaldi-tasa altua ere beste arazo larria da, emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioa. Hala ere, agintariek ez dituzte sexu-eraso gisa sailkatu nahi.

Bestalde, abortatzeagatik espetxe-zigorra ezartzen da, eta gainera, osasun arrazoiengatik zein borondatez abortatzen duten emakumeak kriminalizatzen dituzte. Gaur egun, oraindik ere, 30 urteko espetxealdira zigortutako emakumeak daude.

Hala ere, Limak nabarmentzen du kriminalizazioa ez dela hor bukatzen; auzipetu egiten dituzte, baita ere, errealtate matxista horren aurka agertzen diren emakumezko ekintzaileak, emakumeen eskubideak errespetatzeko exijitzen dutenak, alegia.

### ***Gizonekiko genero ezberdintasuna emakumeen eskubideen defendatzaileei eta feministei zuzendutako mehatxuetan, indarkerian, hertsatzean eta kriminalizazioan***

El Salvadorren emakume asko hiltzen dituzte beren eskubideak aldarrikatzeagatik. Irmak dioenez, bai El Salvadorren baita Latinoamerikako beste estatu batzuetan ere, giza eskubideak defendatu ahal izatea, berez, giza eskubide bat gehiago dela ulertzen da. Aitzitik, eskubide hori urratzen da, bereziki emakumeek defendatzen dutenean. Sakonki patriarkalak diren gizarte hauetan, oraindik ere emakumeak eremu hertsiki pribatuarekin lotzen dira, eta ez publikoarekin. Gizonezko ekintzaileei egindako mehatxuek eremu pertsonalarekin edo lanekoarekin dute zerikusia, baina emakumezkoen aurkako mehatxuek familia ingurunearekin dute lotura. Horrez gain, estigmatizazio soziala etengabekoa da. Emakumeekiko obsesio horrek ez die soilik ekintzaile feministei eragiten. Izan ere, bestelako borroketan murgilduta dauden emakumeak ere epaitzen dituzte: lurra izateko eskubidea, lan gatazkak, etab.

Eraso horien aurrean, Limak azpimarratzen du emakumeen eskubideak defendatzen dituzten antolakundeak beste antolakundeekin koordinatzen direla, bereziki Erdialdeko Amerikako antolakundeekin. Horrelako sareak babes-tresna izan daitezke baita ere, besteak beste babes-etxeen sare gisa funtzionatuz. Antolakuntza da beren armarik onena, babes-mekanismoen faltagatik eta agintariekiko duten mesfidantzagatik. Indarkeria fisikoaz eta mehatxu sozialaz gain, gero eta ohikoagoa da ere errepresio digitala.

**MAGGY BARRERE**, Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoko zuzendaria eta Zuzenbidearen Filosofia irakaslea (EHU)

### ***Espainiako Estatuko egoera, emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko eskubideari lotutako legegintza***

Maggyren esanetan, gaur egun, emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea ez da inola ere aitortzen Espainiako legeetan, ezta konstituzioan ere. Gaur egun Espainiako Konstituzioa erreformatzeaz asko hitz egiten den arren, inork ez du emakumeen eskubideez ezer esaten. Egia da 2004-1 legeak, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa ematekoak, zenbait hobekuntza jasotzen dituela, adibidez genero indarkeria terminoa aitortzea. Sentsibilizazio, babes eta detekzio elementuak ere jasotzen ditu, eta epaitegi zehatzak eratzea, besteak beste.

Hala ere, EHUko irakaslearen iritziz, hori guztia ez da nahikoa, eta zigor-sistema emakumeen aurkako indarkeria-tresna da oraindik ere. Estatua bera da eskubide urraketa horiek babesten dituen, eskubideok erabiltzea babestu eta bermatu beharko lukeen arren.

**MARTA MATO**, legelaria. Aditua sexualitate juridikoan eta estatuaren kritika feministan.

### ***Emakumeen eskubideak eta pentsamendu feminista defendatzen dituzten emakumeak kriminalizatzeko formak Espainiako Estatuan***

Martak dioenez, sistema patriarkalak berezkoa du sistema judizialeko zigor-aparatua, eta ondorioz disidentzia mota oro —feminista, bereziki— kriminalizatzeko pentsatuta dago. Tradizionalki, iparraldeko herrialdeetako akademiak hegoaldeko gizarteak erabili ditu gerora elementu analitiko gisa erabiltzeko. Hala ere, bada garaia horri ere buelta emateko, hegoaldeko esperientziak iparraldean argigarriak gerta daitezkeelako. Adibidez, El Salvadorko borroka oso pedagogikoa izan daiteke mendebaldeko gizarteetan.

Legelariaren ustez, gaur egun Espainiako Estatuaren errepresio-politikak garatzen ari da, eta horrek protesta sozialerako espazioa are gehiago murrizten du. Honekin batera, zigor-aparatua ere hedatzen ari da. Emakumearen bazterkeria bera har daiteke zigor-sistemaren hasieratzat; horregatik hartzen da zigor-sistema patriarkatuaren berezko elementutzat. Finean, berez ezegonkorra den sistema kapitalista honetan, genero ezberdintasuna egonkortasuna mantentzeko metodo gisa ezartzen da..



## HIRU GONBIDATUEN HIZPIDEA

*Mugimendu feministak askotariko gizarteetan izandako aurrerabideen eta lorpenen aurka patriarkatuaren aldetik emandako erantzunak, eta horren aurrean feminismoa nola antolatzen den*

**IRMA LIMA:** Abortuaren aurkako mugimendua lobby hutsa dela kontuan hartuta, gaur egun harritu egiten gaitu horrelako konferentzietan parte hartzeak, are NBERen baitan ere. Hala ere, patriarkatuak gizarte zibilak baino hobeto jakin du berrantolatzen. Paradoxikoki, gizarte zibilaren estrategia berak erabiltzen ditu patriarkatuak; besteak beste, sare sozialak. Hori gizarte zibilari bere metodo berdinekin aurre egiteko modu bat baino ez da. Talde boteretsu horien aurka eman daitekeen erantzunik onena da norberaren borroka beste mugimenduei gehitzea. Bestela esanda, aurrerakoi guztien batasuna fundamentalismoari aurre egiteko.

**MAGGY BARRERE:** azken erantzunaren ildotik, mugimendu feministak gaur egun jasaten duen irainik handiena etengabeko prestigio galera da. Horren adibide argia da honakoa dioen mitoak: feminismoak genero-indarkeriari lotutako zigor handiagoak nahi ditu soilik. Kezkagarria da hori, feminismoa hasieratik izan baita kritikoa zigor-zuzenbidearekin. Beste mito ezagun bat salaketa faltsuei buruzkoa da. Estatuak mito horiek ikertu eta desmitifikatu ordez, ez du ezer egiten.

Halaber, ezin dugu ahaztu genero-indarkeriaren irismena murrizteko etengabeko ahalegina, beti familia eremura mugatzen baita.

Era berean, Maggyk dio gizonezkoen presioa ere etengabekoa dela eremu akademikoan. Bazterkeria, bakartzea eta emakumeei jartzen dizkieten oztopoak ere bestelako indarkeria motak dira. Indarkeria da ere ikasleei genero-indarkeriaren legeak nola funtzionatzen duen ondo ez irakastea. Ez dago bereizkeriaren eta indarkeriaren ikuspuntu sistemikorik.

**MARTA MATO:** egiatan, erakundeen eta pertsonaia publikoen rola osoki patriarkala da oraindik ere, eta inolako arazorik gabe adierazten dute gainera. Duela pare bat urte apezpiku batek liburu bat argitaratu zuen, *Cásate y sé sumisa* (Ezkondu zaitez eta izan zaitez mendekoa) izenburua zuena. Horrek adierazten du patriarkatuak duen irismena, baita adierazpen publikoetan ere. Jorge Fernandez Diazek ere adierazpen batzuk egin zituen, polemiko samarrak, esanez abortuak zerikusia zuela ETArekin, baina ez gehiegi. Finean, ez die batere axola eskubide berdintasunak eta hala adierazten dute beren diskurtsoen bidez.

Bukatzeko, Marta Matok azpimarratzen du emakumeen eskubideen alde borrokatzea bi zentzutan borrokatzea dela: batetik, gizonen hegemoniaren aurkako borroka, eta bestetik, estatuaren mekanismoen aurkakoa. Biak ala biak daude lotuta, ezinbestean. Errepresioak ez du beti fisikoa izan behar, burokratiko ere izan daiteke. Horri guztiari gizartearen gaitzespena gehitu behar diogu, maiz emakumeen aurka areagotzen dena. Hori guztia, jakina, eremu pribatuan eta familiarenean ikus daiteke islatuta..